

20. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

20 urte dituen Durangoko Euskal Denda tradizio handienetako da Euskal Herrian. Esan beharrik ez dago, Arbaso, Euskal Herriko artisauen elkarteak antolatzen duen azoka hau erakusleaho garrantzitsuena dela; horregatik bada, lurralde guztietako artisauek parte hartuko dute, beste behin ere, Durangoko Merkatu plazan. Abenduaren 4tik 8ra bitartetan, Euskal Denda ezinbesteko hitzordua da artisaua bizirik dagoen gremioa dela erakutsarazteko, baita ohartarazteko ere tradizioz, ofizioz eta trebetasunez beterik datorrela, ilusioz eta itxaropenez, baina batez ere, hobetzeko gogoz.

Edizio hau, Euskal Denda atzera begiratu eta aztertze-kutsuarekin dator. Ekoizle zein bisitarien egutegian finkatuta dagoen hau, beraz, iraganari eta etorkizunak dakarrenari buruzko gogoeta egiteko baliatuko dute. Hamarkada hauetan bietan egindako bidea ebaluatu eta sektorearen etorkizuna aurreikusteko asmoa dute. Ezina zena egia bihurtzeko ikaragarritzko esfortzua, lana, adore eta konfiantza izan dugu, askotan zailtasunei aurre eginez eta aurtengo Euskal Dendaren “Ezina ekinez egina” leloa berretsiz.

Arbasokoek artisautzaren aitzindaritzat dute euren elkarte, gehienek lanbide zaharren aldekoak baitira, baina berrikuntza-plusa gehitu duten zenbait ere badira. Horrela bada, lanbide zaharrei eutsita, eraldatu eta garaikide bihurtu dituzte, beti ere, eskuz lantzeko ikuspuntu eta irizpidetik abiatuta. Pieza guztiak eskulan eta artisautza prozesuen arauak errespetatuz diseinatzen dira. Eurretari askotan, ordea, artisauek berrikuntzara jotzen dute eta inspirazio iturria orainean eta geroan topatzen dute. Horregatik bada, gaur egun artisau izatea garaikide izatea da; horixe ikusiko baitugu aurtengoan.

Euskal Dendaren helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz. Beraz, aukera ezin hobea da bisitatiek bertatik bertara artisauen lanak ikusi eta goza dezaten, eginkizun ia ezinbestekoa profesional hauek biziraungo badute. Esperientzia honi esker, bisitaria ohartuko da lanbide zaharrak indarrean daudela, eta ez dela pieza sortu berrien kalterako.

Artisautza bizimodu gisa uler daiteke, baina gure herriaren balio kulturalak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, baita galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko bidea ere.

Euskal Denda dirauen bitartean, hainbat ekintza ludiko egingo dira azoka barruan artisauaren eta bisitarien arteko interakzioa dinamizatzeko eta, azken batean, bisitaria artisautzaren munduan sarrarazteko.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Euskal Dendak euskal lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. 51 artisau, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik etorritakoak. Espazioak dituen mugak direla eta, ezinezkoa da erakusketari gehiago ekartzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi Euskal Denda ez dela hazten ari; izan ere, urterik urte, euren lanbideei buelta emanez, egokitu eta gaurkotzea lortu duten abangoardiako artisauek parte hartzen dute. Berrogeita hamar artisauetatik, hamasei berriak izango dira.

Bizkaia izango da ordezkari gehien ekarriko dituen, hogeitaz, hain zuzen ere, iaz baino bat gehiago. Gipuzkoatik hamasei etorriko dira; Nafarroa iazko lautik bederatzira pasatu da. Arabarrak ere gehiago izango dira, bost. Lapurditik, aurrekoan bezala, bat etorriko zaigu. Artisau-jarduera gunen inportantea den Durangaldeak bost ordezkari izango ditu Euskal Dendan, honakoak: Anitha Mol, Elorrioren papera eta kartoia lantzen dituen tailerra; zeramika lantzen duen Rosa Etxabe, erakusketari berria; Durangoko Restaurarte, 2010eko stand onena sariaren irabazlea ere han izango da, urtero bezala; eskualdeko taldea osatzeko Bea Unzuetak zuntz begetalak erakutsiko ditu eta Eneko Unzaluk bitxiak.

Sektoreei dagokienez, aurreko ehungintza da nabarmentzekoa, bost izango baitira erakusketariak. Moda, patchworka, tapizaturia, umeentzako ehungintza edo arropa modernista, guztiak aurrerabide ezagugarri. Halaber, nobedadea izango dira egurrezko betaurrekoak, zeinek kritika ezin hobeak izan dituen I+G+B ikuspegitik. Egurgintzak, bada, zazpi ordezkari izango ditu. Nekazaritzazko elikagaietako artisauak ere zazpi izango dira, beira lantzen dutenak lau, bitxigintzakoak zazpi eta forjari bat. Erakusketa gunea osatzeko, otzaragile bat eta sei zeramikagile batuko zaizkie aipaturikoei. Larrugintzak bost ordezkari izango ditu. Halaber, espazioa eta denbora emango zaizkie birziklatutako objektuei, euskal kirolari, beste bina kosmetikari eta jostailugintzari.

Erakusketari berriak hamasei izango dira. Nafarroatik, lehen aldiz, beira lantzen duen Decristalia-Cristal eta moda eta diseinua lantzen duen Erabili. Arabatik berriak etorriko zaizkigu ia denak: Irantzutzu, patchworken espezializatua; Lekutxu, bere jostailu naturalekin; eta bitxigintza garaikidearena lantzen duen Madame Kiwi. Bizkaitik, apostu berritzailea egingo du Anithak, bere papergintzako antzinako teknikekin. Lehen aldiz izango dira Ceramica el Unicornio eta Ixi Wood berritzaileak, sormen handiko sortzaileak eta egurrezko betaurrekogileak. Halaber, lehen aldiz da kosmetiko naturalak egiten dituen Landalorerentzat; larruzko osagarriak egiten dituen Larruzko Eskuakentzat eta Rosa Etxabe zeramikagilearentzat. Gipuzkoak honako ordezkariak bidaliko ditu: tapizaturietako tekniketan abangoardian ari den Artezi Tapizeria; nekarazitzako elikagaigintzan ari den Damasoro Etxaldea; larrugintzako produktuak egiten dituen Eskuz Larrugintza; Hazi eta Hezi jostunak; jostailugintzako abenturan murgilduta dabilen Kromosoma. Aipaturiko guztiek osatuko dute 20. Euskal Denda.

2015eko JARDUERAK

Euskal Dendak beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalen murgiltzeko asmoarekin. Aurtengo 20. edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte. Beharbada, tailerrak eta erakustaldiak dira azoka hau Euskal Herrian egiten direnetatik berezia egiten dutenak. Beraz, aurtengo ere, bisitaria ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Halaber, Euskal Dendaren bost egunetan, “artisau despistatua” lehiaketan parte hartu ahalko dute bisitatiek, beraiek izango baitira protagonista eta hautatuko baitute zein izan den erakustoki onena. Zozketak ere izango dira: erosketa-baleak eta egurra lantzeko ikastaroetan parte hartzea.

KARTELA

Abestiek dioten eran, “20 urte ez da ezer” edo “bizitza osoa da”; edozelan ere, gogoan izateko urteurrena da, eta horixe nahi du Euskal Dendak. Horretarako, Kukuxumuxu markara jo dugu, lehen kartela ere beraiek egin baitzuten.

Atzera begiratu, gogora ekarri eta aztertzea irudikatu nahi izan dute Iruñeko diseinatzaileek, euren estilo ikonoklasta erabilita. Kartelean, lanbide zaharrek izan duten garapena ikus daiteke.

Grafismo biribila erabili du Kukuxumuxuk, eta erruleta bat irudikatuz, Euskal Dendan ikusgai izango diren lanbideak ageri dira. Parte hartuko duen edozein artisauk ikusi ahalko du bere lana islatuta kartelean, non gogora ekartzen dizkigun antzinako lanbideak eta, zailtasunak gaindituta, urteetan zehar izan duten garapena, eta balioa hartzen joan direla zoritxarrari aurre eginez, aurtengo lelo “Ezina Ekinez Egina” benetako bihurtu arte.

Bestalde, hamarkada bi hauek ospatzeko, erakusketa bat jarriko da merkatu plazako atarian Euskal Denda iragartzeko erabili diren edizio guztietako kartelak ikusgai egon daitezen.

ARTETSU GALA

2005ean hasi ginen Artetsu sariak ematen, Arbaso elkartearen hamargarren urteurrenarekin batera. Sari hauen bitartez, banakakoen edota entitateen lana aintzat hartu nahi dugu. Halaber, konplizitaterako bidea eta loturak sortu nahi ditugu aipaturiko lan hori apurka-apurka hazten joan dadin eta, era horretan, gure artisautzaren aldeko hain garrantzitsua den kontzientziazioa ere eragingo dugu.

Horregatik bada, zentzu guztietan artisautzaren alde egiten duten artisauak, erakundeak eta hedabideak saritzen ditugu. Hamaikagarren edizio honetako Artetsu sariak honakoak izango dira:

BIZITZA OSOA: Jose Ramón Salmantón. Salmantón. Otzaragintza.
Elena Txintxurreta. Buztingintza.
Alicia Bengoetxea. Espartingintzan.

HEDABIDEAK: DEIA.

ERAKUNDE LAGUN: Zamudioko Udaletxea.

EUSKARA SUSTATZEA: Euskal Herrian Euskaraz.

Sariak emateko gala abenduaren 4an, ostiralean, egingo da Udal Merkatu Plazan, arratsaldeko 19:30etan.

Sariaren ikurra esku bat da, gai eta tresna nahitaezkoa, ezinbestekoa artisautzan jarduteko. Beiraz eginiko alegoria bat da, gardentasuna, argia, ardura eta lan-xehetasuna adierazten dituen. Egilea, Bilboko Iker Sanz da, Iger by Aker artisau-tailerrekoa.

Hona hemen, sortzaileek piezari buruz duten ikuspuntu poetiko eta filosofikoa:

“Hastapenetara atzera eginez gero, esku sendoa ikusten dugu, oinarrizko tresna itxuraduna. Zabalik dago, unearen zain, ideiaaren zain, prest aldaketa has dadin. Biluzik dago eta, milioika argi tindatuk inguratuta, bere barrena zeharkatzen uzten digu; badirudi aurkako material aldakor batek osatu duela”.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

FITXA TEKNIKOA

EDIZIOA: 20.a

DATA: abenduaren 4tik 8ra

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.
Igandea 8, 20:00ak arte.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Ostirala 4, 12:00etan

ARTETSU SARIA: Ostirala 4, 19:30etan. Udal Merkatu Plazan.

ERAKUSTOKIAK: 51

LURRALDEKA

Araba 5
Bizkaia 20
Durangaldea 5
Gipuzkoa 16
Lapurdi 1
Nafarroa 9

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 7
Beira 4
Zura 7
Forja 1
Otzaragintza 1
Larrua 5
Ehungintza 5
Zeramika 6
Arte 1
Bestelakoa 1
Euskal Kirola 1
Kosmetika 2
Bitxigintza 7
Jostailuak 2
Papera eta kartoia 1

ESLOGANA: Ezina Ekinez Egina

LEKUA: Durangoko Azoka
1.600 m²

LEHIAKETAK: Artisau despistatua
Publikoren ustez, erakustokirik politena.
Zozketa: Erosketarako baleak

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia
BABESLEAK: Durangoko Udala
Durangoko Turismoa
DEIA
GARA
ONDA VASCA

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info
euskaldenda.blogspot.com/
www.arbaso.com

HEDABIDEAK: Lorea Madina
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24